

2/1992 Foru Dekretu Arau-Emailea, martxoaren 17koa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onesten duena (BAO Apirilaren 2koa)

ZIOEN AZALPENA

Udal Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauak udal eremuko tributu sistema berria sortu zuen, berorretan ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga kokatzen delarik.

Aipatu foru araua indarrean jarri zenetik iragan den denboran zehar aldarazpen batzu joan dira gertatuz, gaur egun zerga honen araupeketa barreiaturik dagoelarik.

Hori dela zio, Bizkaiko herrialde historikoko 1992.era Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak, bere laugarren xedapen gehigarrian, eskuespena ematen dio Foru Aldundiari testu bategina gertutzeko, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari doazkion indarreko xedapenak erregularizatu, argitu eta armonizatzeko baimenarekin.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatu, eta Foru Aldundiko gobernu kontseiluak, 1992.eko martxoaren 17ko bileran, eztabaidatu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Jarraian erantsiko den Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren testu bategina onetsi da.

EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 6/1989 FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA.

LEHEN KAPITULUA IZAERA ETA ZERGA EGITATEA

1. Artikulua.

1. Ekonomia Ihardueren gaineko zerga ondasun izaerazko zuzeneko tributua da, eta Bizkaiko herrialde historikoan enpresa, lanbide edo arte-ihardueretan aritze hutsa dugu bere zerga egitatea, iharduera horiek lokal jakin batetan egin edo ez eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez arren.
2. Zerga honi dagokionez, abeltzantza, lokabea denean, meagintza, industrialak, merkataritazkoak eta zerbitzugintza hartuko dira enpresa ihardueratzen. Ez dira, beraz, halakotzat hartuko nekazaritza, menpeko abeltzantza, baso-iharduerak edo arrantza, haietariko ezein ere ez delarik zerga honen ziozko zerga egitatea.

Aurreko lerroaldean aurrikusitakoaren ondorioetarako, abeltzantza lokabetzat ondoko kasuotako baten batetan dauden abelburuen multzoa hartuko da:

- a) Abereen jabeak nekazaritza- edo baso-ustiapenik burutzen ez dueneko lurretan alatu edo elikatzea.

- b) Landa finketatik kanpo gortaratua.
- c) Larraldatzezkoa edo mugapasazkoa.
- d) Hazten den finkatik kanpo ekoitziriko pentsuez batez ere elikatzen dena.

2. Artikulua.

1. Iharduera batean, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan eskuhartzeko xedeaz, norbere kabuz ekoizpen eta gizakizko baliabideak antolatzen badira, edo bietarik bat, iharduera hori enpresa, lanbide edo arte izaerakoa dela eritziko da.
2. Kargatutako zereginen edukina zergaren tarifetan zehaztuko da.

3. Artikulua.

Kargatutako ihardueretan aritzea zuzenbidean onargarri den edozein modutara frogatuko da eta, bereziki, Merkatal Kodeko 3. artikuluan jasotzen direnen bitartez.

4. Artikulua

Ondorengo ihardueretan aritzeari ez zaio zerga egitate eritziko:

1. Enpresen aktibo finkoak izan eta, besterenganatu baino bi urte lehenagotik, ibilgetu horretan behar bezala inbentariaturik egon diren ondasunak besterenganatzea, eta saltzailearen beraren bakarreko erabilerako ondasunen salmenta, baldin eta denboraldi berebean erabili baditu.
2. Lan pertsonalen edo lanbide-zerbitzuen ordainean jasotako ekoizkinen salmenta.
3. Establezimendua apaindu edo edertzeko xede hutsezko gaiak erakustea. Bezeroentzako opari-gaiak erakustea, aldiz, zergari loturik egongo da.
4. Txikizkako salmenta denean, egintza bakar bat edo eragiketa isolatu bat burutzea.

II. KAPITULUA SALBUESPENAK

5. Artikulua.

1. Honako hauek egongo dira zergatik salbuetsita:
 - a) Estatua, Euskal Herriko autonomi elkarteak, Bizkaiko herrialde historikoa eta udal erakundeak, baita euren administraziozko erakunde autonomoak ere.
 - b) Nazioarteko itunben edo hitzarmenenak direla bide, salbuespena aplikagarri zaien subjektu pasiboak.
 - c) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeen arabera eratutako mutualitate eta montepioen erakunde kudeatzaileak.
 - d) Ikerketa-alarreko herri-erakundeak, Estatu, Euskal Herriko Autonomi Elkarte, Bizkaiko Foru Aldundi, Toki-Erakunde, edo ongintzazko edo herri-onerakotzat aldarrikaturiko iraskundeen diruen pentsutan zeharo finantzaturiko edozein mailatako irakastegiak, eta irabazi-xederik gabekoak izan eta hezkuntza-itunepeko erregimenean egon daitezen irakastegiak, are euren ikasleei liburuak edo idazte-gaiak eman edo mantenu erdi edo barnetegi zerbitzuak eskaintzen badizkie eta irakaskuntzan erabilitako lantegietan ateratako ekoizkinak, salbuespenez baino ez, establezimenduan bertan saltzen badira ere, baldin eta salmentaren zenbatekoa, ezin norbanako ezta inorentzat ere izan gabe, lehengaiak erosteko edo establezimenduari eusteko soil-soilik erabiltzen bada.

- e) Gorputz, adimen eta zentzumen urrikoen aldeko irabaz asmorik gabeko elkarte eta fundazioak, ezinduen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babeserako egiten dituzten pedagogia, zientzia, sorospen eta enplegu iharduerengatik, horretarako erabilitako lantegietan ateratako ekoizkinak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, ezein norbanako ezta inorentzat ere izan gabe, lehengaiak erosteko edo establezimenduari eusteko soil-soilik erabiltzen bada.
- f) Gurutze Gorria eta araubidez zehazten diren erakunde berdinesgarriak.
- g) Beren jarduerari zerga hau garatzen den lehen bi zer-galdietan ekiten dioten subjektu pasiboak.

Horretarako, honako kasu hauetan jarduera bat ez da hasit-zat joko:

1. Lehen beste titulartasun batekin egin bada; eta hala gertatzen dela ulertuko da, besteak beste, jarduera-arloak fusionatu, bereizi edo gehitzen direnean.
2. Subjektu pasiboa Merkataritza Kodeko 42. artikulua enaraberako sozietate multzo baten parte bada, baina jarduera hori taldeko beste enpresetako inork lehenago garatutako jarduera bat denean izan ezik.
3. Jarduera horretan, partaidetzaren %25 baino gehiago jarduera hori aurretik garatu duten enpresei baldin badagokie.

Aurreko paragrafoetan xedatutako betetzeko, jarduera bera garatzen dela ulertuko da, zergaren tarifetan jarduera hori talde beraren barruan sailkatuta dagoenean.

- h) Urteko eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplikatu dezakete, baldin eta beraien eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa bada.

Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa da subjektu pasiboek ez edukitzea %25etik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa bolumenari buruz ezarritako betekizuna betetzen ez duten enpresei, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatu arrisku kapitaleko fondo edo sozietateak edo sustapeneko sozietateak direnean, eta partaidetza sozietate edo fondo mota horien sozietatearen xedearen betekizunaren ondorio denean.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.
2. Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboen eragiketen bolumena hauxe izango da: aitortzen zerga-zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako sozietate zibilen eta erakundeen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da. Zergaldia urtebete baino laburragoa izanez gero, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.
3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan. Erakundea, Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko erakunde guztienak izango dira.

4. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapekoen eragiketen bolumena Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkor guztiei egotzi ahal zaiena izango da.
2. Aurreko 1. ataleko d) eta e) letretan araupetzen diren onurek mesedezko izaera izango dute, eta alderdi batek eskatuta emango dira, egoki denean.
3. Aurreko 1 idatz-zatiko a), b), c) eta f) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu Zergaren matrikularen alta-aitorpena.
4. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezarriko du zein kasutan aurkeztu beharko zaion Zerga Administrazioari 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena aplikatzeko bertan adierazitako betekizunak betetzen direla dioen agiria.

Ondore horietarako, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezarriko du zer adierazi behar den agiri horretan eta nola eta zein epetan aurkeztu behar den, eta zein balizkotan aurkeztu behar den telematikoki.

Aurreko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespenean eragina eduki dezakeen aldakuntzarik gertatuz gero, foru arau honetako 13. artikuluko 2. idatz-zatiko hirugarren paragrafoan ezarritakoa hartuko da kontuan.

III. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOAK

6. Artikulua.

Bizkaiko Foru Tributu Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak izango ditugu zerga honen subjektu pasibo, baldin eta zerga egitatearen sorburu diren ihardueretakoren bat Bizkaiko herrialde historikoan egiten badute.

IV. KAPITULUA TRIBUTU KUOTA

7. Artikulua.

Zerga-kuota Zergaren tarifak foru arau honetan eta berau osatzen eta garatzen duten xedapenetan adierazitako manuen arabera eta, behar denean, udal bakoitzak erabaki eta ordenantza fiskaletan adierazitako koefizienteak, indizea eta hobariak aplikatuz sortzen den emaitza izango da.

8. Artikulua.

1. Zergako tarifak, beraietan gutxienezko kuotak finkatuko direla, eta haiek aplikatzeko jarraipidea, arauak emateko eskuordetze hau dela bide emango den foru dekretu arauemailearen bidez onetsiko dira. Gutxienezko kuotak honako oinarri hauen arabera finkatuko dira:

Lehenengo. Zergapeko ihardueren edukina ekonomia alorren ezaugarrien arabera mugarriztea, iharduera horiek, oro har, sailkatuz zergaren sortzapena gertatzean bertan suertatu behar dituzten elementu finkoen bidez.

Bigarren. Zergapeko iharduerak sailkatzen dituzten epigrafe eta idazpuruak, ahal den neurrian, iharduera Ekonomikoen sailkapen nazionalaren arabera antolatuko dira.

Hirugarren. Ekonomi etekin urrikoak direlako zeroko kuota adierazten zaien ihardueren edo iharduera moten zehaztapena.

Laugarren. Tarifak aplikatuz ateratzen diren kuotak ezin izango dira zergapeko ihardueraren ustezko batezbesteko etekinaren %15etik gorakoak, eta horiek

finkatzerakoan, aurreko lehenengo oinarrian aurrikusitakoa ez ezik, zergapeko iharduera horiek egiten direnoko lokalen azalera ere hartuko da kontutan.

Bostgarren. Halaber, zergaren tarifetan Bizkaiko herrialde historiko osoan aritzeko ahalmena ematen duten kuotak finkatu ahal izango dira, iharduerek kuotekiko zergak ordaindu ahal izateko baldintzak adieraziz eta haien zenbatekoa finkatuz, bakoitzaren iharduketa-eremua kontutan hartuta.

2. Zergaren tarifak eta haien aplikatzeko jarraipidea onesteko, artikuluko honetako 1. atalean Foru Aldundiari arauak emateko eman zaion eskuordetza erabiltzeko epea 1991.eko apirilaren 30ean amaituko da.

Zergaren tarifak eta jarraipidea, abeltzantza lokabeari dagozkionetan, Foru Aldundiak onetsi beharko ditu foru dekretu arauemailearen bidez eta 1992.eko martxoaren 31 baino lehen.

9. Artikulua.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Nagusiei buruzko Foru Arauek Zergaren Tarifak eta hauek aplikatzeko Jarraibidea aldatu ahal izango dituzte, bai eta berorietan bildutako kuotak eguneratu ere.

10. Artikulua.

1. Udalek Zergaren tarifetan finkatutako udalerriko gutxieneko kuotak gehitu ahal izango dituzte haztapen koefizientea aplikatuz; koefiziente hori eragiketen bolumenaren arabera zehaztuko da.

Edonola ere, Zergaren tarifetan finkatutako probintziako eta estatuko kuotei haztapen koefizientea aplikatuko zaie.

Aurreko lerroaldeetan aipatu koefiziente hori koadro honen arabera zehaztuko da:

Eragiketa bolumena (eurotan)	Koefizientea.
2.000.000,00 - 6.000.000,00 bitartean	1,20
6.000.000,01 - 10.000.000,00 bitartean	1,22
10.000.000,01 - 50.000.000,00 bitartean	1,24
50.000.000,01 - 100.000.000,00 bitartean	1,27
100.000.000,00 tik gora	1,30
Bat ere ez	1,25

Idatz-zati honetan aipatutako koefizientea aplikatzeko, subjektu pasiboaren eragiketen bolumena berak egindako ekonomi jarduera guztiena izango da; foru arau honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

2. Udalek Zergaren tarifetan finkatutako gutxieneko kuotak edo aurreko idatz-zatian araupetutako koefizientea aplikatuz gehitutako kuotak aldatu ahal izango dituzte udalerriko jarduera guztiei koefiziente bakarra aplikatuz. Koefiziente hori ezin da izan 0,8 baino gutxiago ez 2,2 baino gehiago.
3. Aurreko idatz-zatietan araupetutako koefizienteez gainera, udalek gutxieneko kuotetan, edo koefiziente horiek aplikatuz aldatutako kuotetan, lokala udalerrian dagoen tokiaren arabera (kalearen kategoriaren arabera, alegia) aplikatuko diren haztapen-indizeen eskala ere ezar dezakete. Eskala horretako beheko muturreko indizea 0,5 izango da gutxienez eta goiko muturrekoa 2 gehienez.

Kokapen-indizea finkatzeko, udalerrri bakoitzak ezarri behar dituen kaleen kategoriek hiru eta bederatziren artean egon behar dute.

Kale bati aplikatu beharreko indizearen eta beheko edo goiko kategoriako kaleari aplikatu beharrekoaren arteko aldea 0,10 izango da gutxienez."

4. Zerga hau Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen duen udalerrietan, artikuluko honetan aipatutako koefizienteak edo indizeak gehienez bi hamartarrekin finkatuko dira.

11. Artikulua.

1. Ordenantza fiskaletan ezarriz gero, Zergaren kuotari hobari hauek aplikatuko zaizkio:

- a) Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauko IV. tituluan aipatutako kooperatiben eta beraien baterakunde, federakunde eta konfederakundeen kuotari %95era arteko hobaria.
- b) Ekonomi jarduera bati ekiten diotenen kuotari %50era arteko hobaria, baldin eta udal kuota ordaintzen badute, bigarren zergaldia amaitu ondoren jarduerak irauten duen lehen bost urteetan.

Ekonomi jarduera beste titulartasun batekin egin bada, ezin aplikatu izango da hobaria. Jarduera lehen beste titulartasun batekin egintzat joko da bategitea, bereizketa edo arlo-gehikuntza gertatu bada.

Foru arau honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letran ezarritako salbuespena amaitu ondoren, lehen bost urteetan soilik aplikatu ahal izango da hobaria.

Hobaria zerga-kuotari aplikatuko zaio. Zerga-kuota tarifa-kuota izango da; behar denean foru arau honetako 10. artikuluan adierazitako koefizienteak eta indizeak aplikatuz aldatuko da. Baldin eta idatz-zati honetako a) letran aipatutako hobaria aplikatu ahal bada, letra honetako hobaria hura aplikatu ondoren geratzen den kuotari aplikatuko zaio.

- c) Enpleguaren sorkuntzaren zioz kuotaren %50era arteko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta hobaria aplikatu aurreko zergaldian zehar mugaegunik gabeko kontratudun langileen batez besteko plantilan gehikuntza izan bada aurreko zergaldiarekin erkaturik.

Ordenantza fiskalean hobari-portzentaje desberdinak ezar daitezke, beti ere aurreko paragrafoan finkaturiko gehieneko muga gainditu gabe, mugaegunik gabeko kontratudun langileen plantilaren batez besteko gehikuntzaren arabera.

Hobari hau aurreko letretakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

- d) Kuotaren %50era arteko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta:
 - Energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioen edo kogenerazio-sistemen bidez energia sortzen badute edo hala sortutako energia erabiltzen badute.
 - Ondore hauetarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalaziotzat hartuko dira Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean hala azaldu eta definitu direnak. Kogenerazio-sistematzat hartuko dira aldi berean elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria sortzen dutenak.
 - Industri jarduerak, ekin zietenetik edo geroago lekualdaketaz geroztik, udalerriko herrigune jendetsuenetatik urrun dauden lokal edo instalazioetan egiten badituzte.

- Langileentzako garraio-plana ezartzen badute joan-etorrietan ahalik energiarik gutxien kontsumitzeko eta ingurumena ahalik gutxien kutsatzeko eta garraiobiderik eraginkorrenak erabiltzea sustatzeko, esaterako, talde-garraiobideak eta lagun arteko garraio-txandak.
 - Hobari hau aurreko letretakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.
- e) Kuotaren %50era arteko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta euren ekonomi jardueraren errenta edo etekin garbia hobaria aplikatu aurreko zergaldian negatiboa edo ordenantza fiskalean ezarritako kopurua baino txikiagoa bada; ordenantzan hobari-portzentaje eta muga desberdinak ezar daitezke jarduerari Zergaren tarifetan dagokion atal edo taldearen arabera.
- Hobari hau aurreko letretakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.
- f) Kuotaren % 50era arteko hobaria ingurumen kudeaketa-rako sistemen ziurtagiria duten subjektu pasiboentzat, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aipatutako jarduera sailkatuetako baten bat egiten duten enpresak izanez gero eta Europako EMAS arautegian ezarritako baldintzak betez gero.
2. Aurreko idatz-zatiko edukiaren eta eren inguruko gainerako alderdiak kasuan kasuko ordenantza fiskalean argituko dira. Besteak beste, ordenantza fiskalean ezar daiteke hobari horiek, edo haietako batzuk, ezin direla aldi batera aplikatu.

V. KAPITULUA ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

12. Artikulua.

1. Zergaldia egutegiko urtea bera izango da, salbu eta alta aitortenak direnean, horrelakoetan jarduera hasten den egunetik egutegiko urtea amaitu artekoa izango baita, artikulu honen 2. paragrafoko 2. lerroaldean xedatutakoa eragotzi gabe.
2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da, eta kuotak ezin izango dira txikitu, salbu eta alta aitortenetan jardueraren hasierako data egutegiko urtearekin bat ez datorrenean, horrelakoetan kuotak urtea amaitzeko egutegiko urtetik falta diren hiru hilekoen, jarduera hasi den hiru hilekoa barne, kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatu dira eta.

Halaber, eta jarduera egiteari uzten bazaio, kuotak egutegiko hiru hilekotan hainbanatu ahal izango dira, jarduera egiteari uzten zaion hiru hilekoa barne dela.

3. Ikuskizunak direnean eta kuotak ekintza solteetarako ezarri direnean, sortzapena ekintza bakoitza egiten denean sortuko da eta bidezko aitortenak aurkeztu beharko dira.

VI. KAPITULUA KUDEAKETA

13. Artikulua.

1. Zergaren kudeaketa haren matrikulatik abiatuta egingo da. Matrikula hori urtero egingo da udal bakoitzean, eta ekonomi jardueren, zergan salbuetsita ez dauden subjektu pasiboen, zergazorren eta, hala denean, foru errekarquaren zentsuez osatuta egongo da. Matrikula udalen esku egongo da, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute matrikularako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio- datu batzuk eskatuko dituztenak izaera pertsonaleko datuak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko.

2. Subjektu pasiboek zentsuko alta-aitorpenak aurkeztu beharko dituzte; aitorpen horietan aurreko idatz-zatian adierazi diren terminoetan matrikulan sartu beharreko elementu guztiak adierazi beharko dituzte arauz ezartzen den epean. Jarraian, eskumena duen administrazioak bidezko likidazioa egingo du; likidazioa subjektu pasiboari jakinaraziko zaio eta, hark, bidezko sarrera egin beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epeetan eta zehazten den bezala.

Hain zuzen ere, foru arau honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena ezin aplikatu duten subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote euren eragiketen bolumena. Orobat, eragiketen bolumenean aldaketa bat gertatzen bada eta horrek foru arau honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespenaren aplikazioan eragina badu, edo foru arau honetako 10. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako haztapen-koefizientearen aplikaziorako kontuan hartu beharreko tartean zerbait aldatzen bada, subjektu pasiboek horren berri eman behar dute. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehaztuko du zein kasutan eman behar den horien berri, eta finkatuko du zer adierazi behar den eta zein epetan eta nola aurkeztu behar den. Horrez gainera, telematikoki zein kasutan aurkeztu behar den ere ezarriko du.

3. Tributu-ikuskaritzako iharduketen edo altak eta berriemateak aurkeztearen ondorioz, zentsuetan datuak erantsi, kendu edo aldatzeari administrazio egintza eritziko zaio, eta zentsuaren aldarazpena ekarriko du. Zentsuetan dauden datuei buruz matrikulan edozein aldaketa egiteko, datuen aldaketa egin beharko da aurretik haietan, ezinbestez.
4. Zerga hau autolikidazioaren erregimenean exigitu ahal izango da, araubidez ezartzen den legez.

14. Artikulua.

1. Ordainerazpen, kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketa ahalmenak, borondatezko aldian zein premiamendu bidean, zergapeko iharduerak egiten direneko udalerriko udalari dagozkio.
2. Udalei, beren eskumeneko gaietan, honako hauek dagozkie: errekurso eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, kobrantzako ordainagirien prestatzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta, zerga honi buruzko gaiei dagokienez, zergadunaren laguntza eta informaziorako jarduketak egitea.
3. Foru Aldundiari dagozkio, soil-soilik, matrikula eratzea eta gordetzea, ekonomi iharduerak kalifikatzea eta kuotak jartzea.

Aipatutakoaren kalterik gabe, egintza hauen jakinerazpena udalek zein Foru Aldundiak egin dezakete, tributu zorrak zehaztera jotzen duten likidazioen berriematearekin batera.

4. Udalek laguntza emango diote Foru Aldundiari matrikula eratu eta gordetzeko, hala nola ekonomi iharduerak kalifikatzeko eta kuota egokiak jartzeko ere.
5. Salbuespenak emateko edo ukatzeko, emandako ebazpenaren berri jakinarazi beharko zaio Foru Aldundiari.

15. Artikulua.

Iharduerak sailkatzeko eta kuotak finkatzeko egintzen aurka jartzen diren errekurso eta erreklamazioetarako, Bizkaiko Herrialde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorreko 156.etik 168.eranoko artikuluek xedatutakoa izango da aginduzko, aipatu errekurso eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna Bizkaiko Foru Aldundia izango delarik. Erreklamazio horiek jartzeak ez du egintzen betetazpena etenen.

16. Artikulua.

1. Foru Aldundiak udal bakoitzari dagokion matrikula egin, eta bidali egingo dio.
2. Zergadunek aukera izango dute matrikularen edukia aurkaratzeko, aurreko artikuluan ezarritako eran.

17. Artikulua.

1. Matrikula jendaurrean jartzeko epea 13. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoaren arabera amaituta eta errekurtsioak eta/edo erreklamazioak ebatzita, udalek ordainagiriak prestatuko dituzte eta ordainagiriotan jasoko diren likidazioak biltzen dituzten kobrantzazerrendak onartuko dituzte; hala ere, beti egongo da aukera Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauko 8. artikuluan adierazten diren lankidetzeta-formulak erabiltzeko.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak ordainagiriak egin eta kobrantzazerrendak onesteko eginkizuna eskuordetzaren bidez bere gain hartuta daukanean, zerrendak udalen esku egongo dira, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneten izango dute zerrendetarako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio-datu batzuk eskatuko dituztenak izaera pertsonaleko datuak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskuespena ematen zaio Foru Aldundiari, Ekonomi Itunearen eremuaren barruan, probintzia mailako kuotak edo probintzia batetan baino gehiagotan iharduteko ahalmena ematen duten kuotak, hala izanez gero, iratxiki zaizkien ihardueretik kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketa eginkizunak betetzeko administrazio eskuduna zehazteko. Halaber, iharduera hauei berriro gagozkiela, Foru Aldundiak, hala behar izanez gero, lurralde eskumena finkatzen duten lotura guneak jarri beharko ditu edo, beharrezkoa bada, diru-bilketa egozteko modua.

Eskuespen honen erabileraren berri emango zaie Bizkaiko Batzar Nagusiei, beraiek, bidezko bada, berrets dezaten.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

1. Ekonomi ihardueren gaineko Zerga 1992.eko urtarrilaren 1az geroztik hasiko da Bizkaiko herrialde historiko osoan exigitzen.

1992.eko zergaldiari soil-soilik dagokionez eta urte horretako urtarrilaren 1ean sortzen den zergaren ordainerazpenari begira, aipatu epealdian aplikatu behar diren gehikuntzakoefizientea eta egoera-indizeen eskalak finkatuko dituzten ordenantza fiskalak urte horretako uztailaren 1a baino lehen argitaratu beharko dira, Udal Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Araueko 16.4. artikuluan aurrikusi legez.

1992.eko urtarrilaren 1era arte, merkatal eta industri ihardueren lizentzia fiskalak eta lanbide eta arte iharduerenak eskatzen jarraituko da, baita haien gaineko errekaruak ere. Halaber, eta egun berorretara arte, udalek jarraitu ahal izango dute finkamendu eta agiritasunaren gaineko udal zergak eskatzen.

1991.eko urtarrilaren 1az geroztik, udalek luxuzko gastuen gaineko udal zerga eskatzen jarraitu ahal izango dute, bakar-bakarrik ehiza eta arrantzarako barrupean aprobetxamendua kargatzen duen modalitateari dagokionez. Xede horrekin, aipatu zergarako eta modalitate horretan aginduzko diren xedapen guztiek indarrean jarraituko dute. Halaber, adierazitako zerga eta modalitatea araupetzen dituzten udal ordenantza fiskalak indarrean jarraituko dute. Zerga honen gainerako modalitateak ezabaturik geratuko dira 1991.eko urtarrilaren 1az geroztik.

2. Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga aplikatzen hasterakoan, merkatal eta industri ihardueren lizentzia fiskalean edo lanbide eta arte ihardueren lizentzia fiskalean edozein onura fiskalen jabe direnek, aurrenik aipatutako zergan onura horiek izaten jarraituko dute, onura horiek epez galdu arte, eta epemugarik ez balute, 1994.eko abenduaren 31ra arte, egun hau barne.
3. Honako xedapen iragankor honen 1. atalean xedatutakoa gorabehera, Ogasun eta Finantza saila, 1992.eko urtarrilaren 1a baino lehen, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergarako zentsuak eratzen hasi ahal izango da. Horretarako, aitorpena aurkeztu behar duten subjektu pasiboak eta hura egiteko epea araubidez zehaztuko dira.

Bigarrena.

Foru Arau honek aipatzen dituen udalerrien egungo tributuen ezabaketa, haren aplikazioaren ondorioa izanik, bai eta tributu horientzat aginduzko diren xedapenen indargabeketa ere, administrazioak, xedapen horien arabera, aurretik sortutako zorrak exigitzeko duen kalterik gabe ulertuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Honako foru arau indarrean jarriz gero, beronetan ezarritakoaren aurka doazen lerrun bereko nahiz beheragoko xedapen guztiak indargabeturik geratuko dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa, foru arau honetako xedapen iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertuko da.

AZKEN XEDAPENA

1. Eskuespena ematen zaio Foru Aldundiari, honako foru araua garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.
2. Honako foru arau hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.